

2016 UZT: 06

ESTATUTUEN BILTEGIA-AURKEZPENA
DEPOSITO DE ESTATUTOS-PRESENTACION
Ordutia/Hora: 13:27
Izenpea/Firma: 

ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN DE HOSTELERÍA DE BIZKAIA – BIZKAIKO OSTALARITZA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

I. kapitulua

ERAKETA, IZEN SOZIALA, XEDEAK, IRAUPENA ETA EGOITZA

1. artikulua. Batasunaren, demokraziaren, askatasunaren eta independentziaren printzipioetan oinarrituta eratu da Asociación de Hostelería de Bizkaia – Bizkaiko Ostalaritza Elkartea, apirilaren 1eko sindikatueta elkartzeko eskubideari buruzko 19/77 Legearen babespean, eta indarrean dagoen legeriaren, Estatutu hauen eta bere garapen-arauen arabera arautuko da.

Elkartea bere izaera pribatua eta bere jardueren izaera profesionala berresten ditu, jarduera horiek ahalik eta zabalenak izango direlarik, ordenamendu juridikoak instituzionalki onartzen duen legezko esparruaren barruan. Legezko esparru horrek administrazio zentzual, toki- edo probintzia-administrazioetan nahiz autonomia erkidegoko administrazioan izango du jatorria.

2. artikulua. Elkartea, bere baliozko eratze-momentutik aurrera, jarduteko ahalmen juridiko, autonomia eta askatasun osoak izango ditu bere xedeak bete ahal izateko neurrian, eta baita bere ondasunak erabiltzeko eta eskubideak baliatzeko ere.

3. artikulua. Elkartea Bizkaiko probintzia-esparrurako eratu da, Bilbon izango du egoitza (On Diego López Haroko Kale Nagusia, 38), eta egoitza hori etorkizunean aldatzekotan, aldatzea horrek ez du Estatutu hauen aldaketarik ekarriko.

Elkartea delegazioak edo tokiko edo eskualdeko ordezkariak ezarri ahal ditu bere nortasun juridiko pertsonal bakarrari uko egin gabe.

4. artikulua. Elkartea, bere elkartekideen bidezko interesen defentsa eta ordezkaritza eta ostalaritzaren bilakaerarako probintzia-erakunde gorena den heinean, honako xedeak izango ditu:

- Elkartekideen kudeaketa eta ordezkaritza kolektiboa mota orotariko pertsona, organo edo erakundearen aurrean, publikoak nahiz pribatuak.
- Elkartekideen ekimenen koordinazioa, laguntza eta zuzendaritza.
- Kideen interes profesional, ekonomiko, teknologiko eta komertzialen defentsa.
- Aisialdiarekin eta astialdiarekin lotutako elkartekideen ekimen eta jardura turistiko, kultural, artistiko eta bestelako enpresaren promozioa, kooperazioa, antolaketa eta sustapena, baldin eta zuzenki edo zeharka ostalaritzaren sektorearen enpresa-jardura maila areagotzen badute.
- Orokorrean, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearekin lotutako orotariko azterlan, analisi eta ikerkuntzak sustatu eta burutzea.
- Ostalaritzaren sektorea eta horrekin lotutako jarduerak osatzen dituzten enpresaren prestakuntza helburu duten orotariko hezikuntza-jarduerak sustatu, lagundu eta antolatzea, eta



baita sektore edo jarduera horietan zerbitzu profesionalak ematen dituzten edo behar diren pertsonen prestakuntza helburu dutenak ere.

- g) Indarrean dauden legeei jarraiki, auzitegien aurrean edo bestelako erakunde publiko edo autoritateen aurrean Elkarteari dagozkion akzioak baliatzea.
- h) Enpresarien prestakuntza sustatzea.
- i) Ondasunak erosi eta ondasunen jabetza izatea eta, erregelamendu-arauen arabera, obligazioak bere gain hartzea, edozein kasutan ere finantza-kudeaketaren erantzukizuna bestelako elkarte profesionali zabaltzea.
- j) Sektore bereko antzeko elkarteei eta baita Elkartea kide den federazioei ere informazioa ematea kontsulta egiten dioten gaien inguruan.
- k) Elkartekideen artean elkartasun- eta adiskidetasun-loturak sustatzea.
- l) Botere publikoekin batera sektoreko enpresei eragiten dien araudiaren prestakuntzan parte hartzea, bai eta merkatuko lehia arautu eta hobetzeko neurrien prestakuntzan ere, konkurrentzia bidegabea ekiditeko xedearekin.
- m) Elkartekideen onurarako eta ostalaritzarekin zuzenki loturiko administrazio-, zerga- eta lan-aholkularitza, aholkularitza teknikoa, ekonomikoa edo bestelakoa ematea.
- n) Arbitraje-lanak burutzea, elkartekideen artean edo elkartekideen eta hirugarrenen artean gerta litezkeen desadostasunak ebazteko, alderdiek arazoa modu boluntarioan bere ebazpenaren mende uzten badute.
- o) Elkartekideen ordezkaritza burutzea lan-arloan, besteak beste honakoen bidez: negoziazio kolektiboa, laneko gatazka kolektiboen planteamendua, gizarte-elkarrikeria eta parte-hartze instituzionala administrazio publikoetako erakundeetan.
- p) Orokorrean, bere kideen onura profesionala dakarren beste edozein xede, betiere interes pertsonalak interes erkideen mende jarritz.
- q) Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna bermatzea, bai barne-antolakuntzaren alorrean eta baita elkartearen xedeen garapenean ere, sexu edo generoagatiko diskriminazioa debekatuz.
- r) Igortzen diren irudiek eta komunikazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko legeak betetzen dituztela bermatzea, pertsonak beren aniztasun osoan agertuz: askotariko adinak, maila soziokulturalak, estetikak, jatorri geografiko eta etnikoak, desgaitasunen bat duten pertsonak, etab.; berariaz debekatuz pertsonak, beren generoaren arabera, giza duintasun handiagoko edo txikiagoko gisa agertzen dituzten iragarkiak burutzea, emititzea eta erakustea, bai eta pertsonak objektu sexual soil gisa agertzen dituztenak ere, edo emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo sustatzen dutenak.

5. artikulua. Elkartearen esparruaren barne egongo dira: hotelak eta ostalua ematen duten bestelako enpresak, jatetxeak, kafetegiak, tabernak, festa-aretoak, dantzaleku eta diskotekak, bingoak eta antzekoak, betiere indarrean dagoen legeriaren baldintzak betetzen badituzte edo etorkizunean lege horiek ordezkatzan dituzten legeenak.

Elkarte honen kide bilakatzea erabaki boluntarioa izango da.

6. artikulua. Elkartea epe-mugarik gabe eratzen da eta bere elkarte homologoekin batera erakunde nagusiago baten barne sar liteke, horrek bere nortasun juridikoari edo jarduteko ahalmenari eragin gabe.



II. kapitulua

ELKARTEKO KIDEAK ETA ELKARTEKO KIDE BABESLEAK

7. artikulua. Aurreko kapituluan ezarritakoaren arabera, Elkarteko kide izan ahalko dira ostalaritza-industrien titulartasuna dutenak, 5. artikuluan ezarritako ostalaritza-industrien definizioaren arabera.

Kide bilakatzeko, aldeztu aurretik eskaera zuzendu beharko zaio Elkarteko lehendakariari eta, ondoren, Zuzendaritza Batzordearen adostasuna lortu beharko da.

Adostasuna eman dela ulertuko da eskaera-dataren hurrengo 45 egunetan zehar Zuzendaritza Batzordeak berriarazko adostasunik adieraziko ez balu.

Industriaren titularra pertsona juridikoa den kasuetan, eskaera gauzatuko da horretarako nahikoa ahalmen duen ordezkariaren bidez.

8. artikulua. Elkarteko kide izateak inplizituki dakar Estatutu hauen eta etorkizunean jasan litzaketen aldaketen onarpena, eta baita gobernu-organismoek, beren eskumen-esparruen barruan, baliozko moduan hartutako erabakiak errespetatzea ere.

Elkartekideen kontrol hobe izate aldera, erregistro-liburu bat mantenduko da, behar bezala zigilatua eta orrialdeak zenbakituz, gertatzen diren altak eta bajak idatziz islatzeko.

Elkarteko kide izateak berriarazko eta zalantza gabeko baimena ematea dakar galdetegiaren bidez, posta elektronikoz, telefonoz edo pertsonalki emandako datuak Asociación de Hostelería de Bizkaia – Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen jabetzakoa den fitxategi automatizatu batean sar daitezten. Datu hauen erregistro eta tratamenduaren helburua izango da Estatutu hauen 4. artikuluan aipatutako Elkartearen xedeak betetzea.

Elkartekideek elkartekideen datuak erabili ahalko ditu elkartekideen intereseko gisa jotzen dituen enpresa-komunikazioak, komunikazio profesional, tekniko, komertzial, dibulgatzaileak, eskaintza- eta publizitate-komunikazioak eta antzekoak helarazteko, posta elektronikoz edo bestelako euskarri fisiko, elektronikoz edo telematikoz erabiliz, eta baita Elkartearen xedeak betetzeko beharrezkoa den beste edozein helburutarako.

Halaber, elkartekideek baimena ematen dute datu horiek helarazteko Elkartearekin harremanetan duten edo Elkartekide beren laguntza edo lankidetzaren behar duen bestelako enpresa-erakunde edo hirugarrenei, Estatutu hauen 4. artikuluan adierazitako xedeak betetzeko helburuarekin.

Aipatutakoen desberdina den beste edozein datu pertsonalen erabilerak dagokion kidearen prezioa eta berriarazko baimena beharko du.

Elkarteko kideek edozein momentutan baliatu ahalko dituzte beren datu pertsonalen inguruko atzipen-, zuzentze-, aurkaratze- eta ezeztatze-eskubideak, Asociación de Hostelería de Bizkaia – Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen fitxategiaren arduraduna den pertsonarekin harremanetan jarritz, honako helbidean: On Diego López Haroko Kale Nagusia, 38, Bilbo.

9. artikulua. Edozein kidek boluntarioki utzi ahalko dio Elkarteko kide izateari.

Erabaki hori eraginkorra izan dadin, hiru hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko zaio modu sinesgarrian Zuzendaritza Batzordeari eta, momentu horretan, Elkartekidearekiko obligazio guztiak, ekonomikoak barne, beteta izan beharko ditu.

Jarduera industrialaren bertan behera uzteak titularra Elkarteko kide gisa baimen ematea ekarriko du, baina horren eraginkortasuna egoera hori idatziz Zuzendaritza Batzordeari jakinaraztearen mende egongo da, eta baita titular berriaren datuak jakinaraztearen mende ere, jardueraren industrialaren zuzenbideari onartutako edozein bide erabiliz eskualdatu egin denean.



Baja-eskaera enpresaren desagertzearen ondorioz egin bada, berehala kitatuko dira titularrak Elkartearikiko onartutako obligazio guztiak, obligazio horiek normalean hurrengo ekitaldietan exekutatzeakoak balira ere.

10. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak edozein kideren baja erabaki ahalko du Estatutu hauetan ezarritako kasuetan, aldez aurretik dagokion espedientea irekiz eta interesdunari entzunaldia emanez.

11. artikulua. Elkartean baja hartzearen arrazoia edozein izanda ere, inplizituki ekarriko du pertsona horri dagozkion eskubide guztien galera eta ez da inongo kasutan inolako zenbatekorik itzuliko.

12. artikulua. Elkarteko kideen eskubideak honakoak izango dira:

- a) Estatutuen arabera deitutako bilkuretara joatea, hizpide eta botoarekin.
- b) Hautagaitzak proposatzea, ordezkaritza-karguak hautatzea eta postu horietarako hautagai izatea eta zuzendaritza-karguak hartzea.
- c) Baimena ematen zaien kasu guztietan, ordezkaritza-lanak gauzatzea.
- d) Egokia denean, informazioa jasotzea Elkartearen jarduerari eta bizitzari buruz, kideei eragiten dieten gaien kasuan.
- e) Erregelamenduetan adierazitako baldintzen arabera Elkartek edo Elkartek sustatutako edo kontratatutako erakundeek eskainitako zerbitzuak erabiltzea.
- f) Estatutuen arauen arabera, Elkartearen kudeaketa ekonomiko eta administratiboan parte hartzea.
- g) Elkartekideentzat onuragarriak izan daitezkeen ekimen eta iradokizun guztiak proposatzea, Elkartearen xedeen esparru barruan.
- h) Elkarteari eskatzea interes profesional orokorren defentsarako akzioak eta errekurtsuak aurkeztu ditzan eta, erregelamenduen arabera, norberaren interes pertsonalak kaltetzen dituzten gobernu-organoen erabakiak aurkaratzea.
- i) Orokorrean, Elkartearen egitura demokratikotik eta bere xede espezifikoetatik eratorritako eskubide guztiak.

13. artikulua. Elkarteko kideen betebeharrak honakoak izango dira:

- a) Estatutu hauetan ezarritakoa, ezar litezkeen erregelamendu-arauak eta gobernu-organismoek baliozko moduan hartutako erabakiak errespetatzea.
- b) Elkartearen jarduerak eta garapen normala ez eragozteak.
- c) Gobernu-organismoek hala eskatzen dietenean, izaera erreserbatua ez duten gaiei buruzko informazio fidagarri eta arduratsua ematea.
- d) Behar den heinean, Elkartea mantentzeko baliozko moduan ezarritako kuotak eta derramak ordaintzea.
- e) Orotariko iritzien adierazpen askea errespetatzea Estatutuen eta legeen arabera antolatutako bilkura guztietan.
- f) Elkartearen interes orokorrak defendatzea, Elkarteari jakinaraziz bere xede edo funtzionamendu zuzenerako kalte edo arriskuren bat dakarten edo ekar lezaketen egoerak.
- g) Orokorrean, Elkartearen egitura demokratikotik eratorritako eta Elkartearen jardueren garapen hobia eta bere xedeen betetzea ahalbidetzen dituzten betebeharrak guztiak.



14. artikulua. Halaber, Elkartearen barne egon ahalko dira, kide edo elkarteko kide babesle gisa, ostalaritza-industrien titular izan ez arren Zuzendaritza Batzordearen iritzitan Elkartearen xedearen betetzean lagun dezaketen pertsonak edo instituzioak.

Elkarteko kide babesleak modu espezifiko eta sinesgarrian deialdia jaso duten bilkuretara bertaratu ahalko dira, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, hizpidearekin eta botorik gabe, eta ez dute sufragio aktibo edo pasiborako eskubiderik izango Elkarteko gobernu-organoen hautapenean.

Elkarteko kide babesleek Elkartea mantentzeko egingo duten ekarpen ekonomikoa kasu bakoitzean Zuzendaritza Batzordeak ezarritakoa izango da.

Aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak kaltetu gabe, elkarteko kide babesleei aplikagarriak izango dira Estatutu honetan ezarritako baldintza guztiak eta Estatutu hauek garatzen dituzten arau guztiak, betiere kide horien izaerarekin bateragarriak badira.

III. kapitulua

ELKARTEAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA, GOBERNU ORGANOA, KUDEAKETA ETA BERTARATZEA

15. artikulua. Batzar Nagusia izango da Elkartearen erabaki- eta gobernu-organo gorena. Eratzen diren gainerako organoek ordezkari izatera, izatera aholkularia edo izatera kudeatzaile soilak izango dute.

Batzar Nagusia Elkarteko kide diren pertsona guztiek osatuko dute. Gutxienez ere, urtean behin bildu beharko du, urte naturaleko lehen sei hilabeteetan zehar, eta ezohiko bilerak antolatu ahalko ditu. Lehendakariak hala erabakitzen duenean edo Elkartearen hamarren batera iristen diren kide-kopuru batek hala eskatzen duenean.

Batzar Nagusiaren bilkura gutxienez ere 15 eguneko aurrerapenarekin deituko da, Elkartearen web orrian argitaratutako jakinarazpen bidez, gaur egun www.asociacionhosteleria.com helbide elektronikoa duena, edo etorkizunean web orri hori ordezkatzeko duen web orrian. Deialdian adierazi beharko dira data, ordua eta bileraren tokia, bai lehenengo deialdirako zein bigarren deialdirako, eta jorratuko diren gaien zerrenda.

Ohiz kanpoko kasuetan, presazko bilera bat justifikatzen duten arrazoiak daudenean, deialdia 36 orduko gutxienezko aurrerapenarekin burutu ahalko da, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzei jarraituz. Kasu honetan, Batzarra bera izango da, bileraren aktarekin batera, deialdiaren presazko izatera azaltzen duten arrazoiak onartuko dituen.

16. artikulua. Kide bakoitzak Batzarrean boto-eskubide bat izango du, gehi beste kide batzuen izenean, idatzizko ordezkari-ahalmen sinatu bidez, dituen botoak.

Pertsona fisikoak ez diren Elkarteko kideek bilera hauetan parte hartuko dute enpresaren zuzendaria den pertsonaren edo xede hauetarako ahalmen nahikoa duen pertsona baten ordezkariaren bidez.

Batzar Nagusian parte hartzeko eskubidea ukatu ahalko zaie Elkartearekin dituzten obligazio ekonomikoak egunean ordaindu ez dituzten kideei.

17. artikulua. Behar bezala osatutako eta adierazitako borondate soziala loteslea izango da elkartekide guztientzat.

Borondate soziala behar bezala osatu dela ulertuko da, gehiengo batekin onartutako erabakia Batzarrearen eskumenen barne dagoen gairen bati dagokionean eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direnean.

Batzar Nagusia baliozko moduan osatuko da, lehenengo deialdian, baldin eta bilkurara bertaratu badira, pertsonalki edo ordezkari bidez, kideen erdia eta, bigarren deialdian, bilkurara bertaratu badira, pertsonalki edo ordezkari bidez, elkartekideen %5.



Erabakiak baliozko moduan emandako botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

Hala ere, Elkartearen xedeekin, egitura organikoarekin, Elkartearen organoen eskumenekin, Estatutuen aldaketekin eta Elkartea desagitearekin lotutako erabakiak hartzeko, edozein kasutan ere beharrezkoa izango da bertaratu diren eta ordezkari bat bidali duten kideen kopurua elkartekideen %10 baino handiagoa izatea.

Batzar Nagusiaren bileretan burututako hausnarketak eta hartutako erabakiak aktan jasoko dira eta akta hori Batzarrak berak onartu ahalko du bilera amaitzean edo, bestela, Lehendakaritzak eta Batzarrak izendatutako bi pertsona ikuskatzailek onartuko dute hamabost egunen buruan.


18. artikulua. Batzar Nagusia da, behar bezala deitu eta osatu denean, Elkartearen organo gorena eta ahalik eta eskumen zabalenak izango ditu Elkartearen xedeekin lotutako gaien inguruan hausnartu eta erabakiak hartzeko, bere eskumen jakinen barne egonik:

- a) Helburuak ezartzea eta jarduera-politika prestatzea.
- b) Estatutuak eta horien garapen-arauak onartzea eta aldatzea.
- c) Beharrezkoa denean, ordezkaritza goreneko karguak dituzten edo izango dituzten pertsonen izendapena eta berrespena.
- d) Zuzendaritza Batzordea hautatzea.
- e) Bere eskumenen barne dauden organoen urteko kudeaketa onartzea.
- f) Bere eskumenen barne aurkezten zaizkion errekursoak ebaztea.
- g) Gastu edo diru-sarreraren aurrekontuak onartzea, ohikoak nahiz ezohikoak, Elkartearen bizitza ekonomikoa zuzentzeko.
- h) Kuota finkoak, aldian behingo kuotak eta Elkartea mantentzeko beharrezko derramak ezarri eta aldatzea.
- i) Ekitaldi bakoitzaren balantzea eta emaitza-kontua onartzea.
- j) Elkartearen egitura organikoa aldatzea.
- k) Federazio-erakundeetan, sektoreko erakundeetan edo sektore arteko erakundeetan sartzeko edo horietatik ateratzeko erabakia hartzea.
- l) Elkartea desagiteko erabakia hartzea.
- m) Ohorezko Lehendakaritzak berrestea.
- n) Zuzendaritza Batzordearen edo bere Lehendakaritzaren esku uztea, kasu jakin bakoitzean, gorago aipatutako funtzioak.

19. artikulua. Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzorde bat aukeratuko du bere organo ordezkari gisa. Zuzendaritza Batzorde hori hamabostetik beherakoa eta hogeita batetik gorakoa ez den kide-kopuru bakoiti batek osatuko du eta bertan egongo da 5. artikuluan aipatutako ostalaritza-industria mota guztien ordezkaritza anitza.

Elkarteko kide den edozein pertsonak aurkeztu ahalko du bere hautagaitza Zuzendaritza Batzordean sartzeko, horretarako beharrezkoa izango delarik Zuzendaritza Batzordearen berrespena jasotzea edo, bestela, gutxienez ere berrogeita hamar elkartekideren sinadura jaso izatea. Hautatutako kideek, pertsona fisikoak ez badira, ordezkari bat izendatuko dute Zuzendaritza Batzordean egoteko eta ordezkari horrek ezingo du inolako harreman profesional edo pertsonalik izan, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, gestoria edo aholkularitza profesionalekin.




ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAIALA
Bizkaiko Laneko, Enpleguko eta
Gizarte Politiketako Ordezkaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Delegación Territorial de Trabajo, Empleo
y Políticas Sociales de Bizkaia

Hautatzen diren pertsonen artean, Batzordeak berak izendatuko ditu:

Lehendakaritza (pertsona bakarrekoa)

Lehendakariordetza (pertsona bakarrekoa)

Idazkaritza (pertsona bakarrekoa)

Diruzaintza (pertsona bakarrekoa)

Batzordeko kideen agintaldia lau urtekoa izango da eta iraupen bereko epeetarako berritu ahalko da modu mugagabea.

20. artikulua. Elkartearen jarduera-esparru barruan dagoen edozein ostalaritza-industria motari edo zonalde geografiko jakin bateko industriei bereziki eragiten dieten gaien azterketa xehatua burutzeko helburuarekin, Zuzendaritza Batzordeak sektoreen edo zonaldeen arabeko Batzarren deialdia baimendu ahalko du. Batzar hauetan hartutako erabakiak ez dira lotesleak izango Elkartearentzat eta Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio gehienez ere hartu zirenetik zazpi eguneko epean.

21. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Nagusiaren organo gisa, honako funtzioak izango ditu:

- a) Batzarrari proposatzea Elkartearen jarduera-programak, dagoeneko onartutakoak zuzenduz eta gauzatuz eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziz.
- b) Urteko aurrekontuak, kontuen egoera eta ekitaldiko memoria prestatu eta Batzar Nagusian bozkatzea.
- c) Elkartearen funtsak kudeatzea.
- d) Dagozkion izendapen eta kargutik kentzeak burutzea eta Idazkari Nagusiaren, Gerentziaren eta Elkarteari zerbitzuak ematen dizkieten pertsona guztien ordainsariak ezartzea.
- e) Elkartekide berriak onartzea eta bajak ematea, kidearen eskaeraren nahiz zigor baten ondorioz, guzti hori Batzar Nagusiari jakinaraziz.
- f) Orotariko ondasun eta eskubideen erosketa eta erabilerari buruzko erabakiak hartzea, edo edozein jurisdikzio edo auzitegiren aurrean akzio judizialak abian jartzeari buruzkoak, Batzar Nagusiari guzti horren berri emanez.
- g) Beharren arabera, funtzio jakinak Lehendakaritzaren esku uztea, edota Batzordeko edozein kideren esku, eta hirugarrenak ahalordetzea.
- h) Lan-batzordeen barne egongo diren edo Elkartearen ordezkari gisa eskualde, nazio eta nazioarteko mailako bileretara joango diren kideak izendatzea.
- i) Orotariko zerbitzuen funtzionamendu normala gainbegiratzea eta bermatzea.
- j) Elkartearen esku uzten diren arbitrajeen antolaketa eta kudeaketa burutzea, honako alderdiei buruzko erabakiak hartuz: gatazka izapidetzea onartzea, jarraitu beharreko prozedura, arbitroen izendapena, izapidetzean ager litezkeen arazo guztien ebazpena, laudoaren aurretiko azterketa, notario aurreko erregistroa eta alderdiei ebazpena jakinaraztea, guzti hori Elkarateak onartutako Arbitraje Erregelamenduari jarraituz, eta baita arbitroen zerbitzu-sariak eta administrazio-gastuak onartzea ere.
- k) Organo honen eginkizunak betetzeko beharrezkotzat edo onuragarritzat jotzen diren eta berariaz Batzar Nagusiari egotzi ez zaizkion gainerako funtzioak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SARIA
Bizkalko Laneko, Enplegu eta
Gizarte Politiketako Ordezkaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Delegación Territorial de Trabajo, Empleo
y Políticas Sociales de Bizkaia

l) Dagokionean, Ohorezko Lehendakartzaren izendapena, Batzar Nagusiaren onarpena eskatuz.

22. artikulua. Zuzendaritza Batzordea ohiko bilkuran bilduko da gutxienez hiru hilean behin, eta ezohiko bilkuran beharrezkotzat jotzen den guztietan, Lehendakartzaren erabaki bidez edo gutxienez ere Batzordeko hiru kidek hala eskatzen dutenean.

Bilerak gutxienez ere bost eguneko aurrerapenarekin deituko dira, Lehendakartzak kide bakoitzari zuzendutako gutun bidez, eta, presazko kasuetan, deialdia telefonoz jakinarazi ahalko zaie kideei gutxienez ere 24 orduko aurrerapenarekin. Azken kasu honetan, Batzordeak berak berretsiko du, bere erabakien artean, ezohiko deialdi honen onarpena.

Elkarteko kideek edozein momentutan eskatu ahalko dute, Zuzendaritza Batzordeari zuzendutako idazki bidez, Zuzendaritza Batzordearen aurrean agertzea beren interesekotzat jotzen dituzten gaiak jorratzeko, ospatzen den lehenengo bilkuran. Zuzendaritza Batzordeak, honelako eskaera baten aurrean, eskaera onartzea edo ukatzea erabakiko du, erabaki hori idatziz eskatzaileei jakinaraziz. Hala ere, eskaera hamar kidek edo gehiagok aurkeztzen badute, Zuzendaritza Batzordeak onartu egin beharko du, eskatzaileei idatzizko deialdia bidaliz bilkuran ager daitezen, eskatzaile horiek proposatutako gaiak jorratu ahal izateko, betiere gai horiek deialdiaren gaien zerrendan sartu beharko direlarik.

23. artikulua. Bai ohiko bilkuran eta ezohiko bilkuran ere, Zuzendaritza Batzordea eratu dela ulertuko da, eta honek hartutako erabakiak baliozkoak izango dira, bilkurara Lehendakartza edo Lehendakariordetza eta gainerako kideen erdia bertaratzen badira.

Bigarren deialdian, besterik adierazi ezean hogeita hamar minutu beranduago gertatuko dena, erabakiak baliozkotzat joko dira bertaratuen kopurua edozein izanda ere, betiere Lehendakartza edo Lehendakariordetza eta gutxienez ere hiru kide bertan badira, erabaki guztiak gehiengo soilez hartuz.

Idazkaritza bilkuran ez balego, honen funtzioak bertaratutako kideen arteko edozeinek buruko ditu, beti ere bilkuraren buru gisa jarduten duen Lehendakartzaren edo Lehendakariordetzaren izendapenaren bidez.

Zuzendaritza Batzordearen erabakiak bertaratuek emandako baliozko botoen gehiengo soilarekin onartuko dira, berdinketa kasuan Lehendakartzaren botoa erabakigarria izango delarik.

Zuzendaritza Batzordearen bileretan burututako hausnarketak eta hartutako erabakiak aktan jasoko dira eta akta hori Batzordeak berak onartu ahalko du bilera amaitzean edo, bestela, Lehendakartzak eta Batzordeak izendatutako bi pertsona ikuskatzailek onartuko dute hamabost egunen buruan.

24. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kideek derrigorrez parte hartu beharko dute bertaratzeko deialdia jaso duten bilera guztietan, baina arrazoi justifikatua izatekotan, beren ordezkartza Batzordeko beste edozein kideren esku utzi ahalko dute.

Justifikaziorik gabe eta jarraian bi bilera baino gehiagora ez etortzeak Batzar Nagusiak kargua uzteko proposamena aurkeztea ekarriko du, bai pertsona horrek Batzordean duen kargua zein Elkartean dituen gainerako karguak uzteko ere.

25. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko karguetan gerta litezkeen postu libreak Zuzendaritza Batzordeak beteko ditu bere kideen artean, hurrengo Batzar Nagusia burutu arte.

26. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak bere eskumenak behin betiko utzi ahalko ditu gutxienez ere lau eta gehienez ere sei kidek osatutako Batzorde Betearazle baten eskuetan. Edozein kasutan ere, Batzorde Betearazle horren kide izango dira Zuzendaritza Batzordeko Lehendakartza eta Lehendakariordetza eta gainerako kideak Zuzendaritza Batzordearen kideen artean hautatuko dira.

Deialdiei, erabakiak hartzeari eta funtzionamendu orokorrari dagokion guztian, Batzorde Betearazleari aplikagarriak izango zaizkio Estatutu honetan Zuzendaritza Batzordeari ezarritako xedapen guztiak eta Batzorde Betearazleak, aldian behin eta gutxienez ere hiru hilean behin, bere jardueren berri eman beharko dio Zuzendaritza Batzordeari.


EUSKO GOBIERNUA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Bizkaiko Laneko, Enpleguak eta
Gizarte Politiketako Ordazkaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Delegación Territorial de Trabajo, Empleo
y Políticas Sociales de Bizkaia

Batzorde Betearazleak bere gain hartuko ditu Zuzendaritza Batzordeak helburu horrekin hartutako erabaki bidez eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak. Inolaz ere ezingo zaizkio Batzorde Betearazleari eskuordetu Batzar Nagusiaren urteko aurrekontuen, kontuen egoeraren eta ekitaldiko memoriaren prestaketa eta aurkezpenarekin lotutako eskumenak.

Halaber, Batzorde Betearazleak behin betiko utzi ahalko ditu bere eskumenak bere Lehendakariaren edo kideren baten esku, eta ahalordetze orokorrak edo espezifikoak eman ahalko ditu hirugarrenen alde.

27. artikulua. Lehendakariak edo Estatutuen arabera Lehendakariak ordeztzen duenak honako funtzioak izango ditu:

- a) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak egin eta bileren buru izatea.
- b) Bilkuren eztabaidak eta gaien zerrenda zuzentzea eta bertan hartutako erabakiak betearaztea.
- c) Elkartea alor guztietan ordezkatzeko eta ahalordeak ematea, Zuzendaritza Batzordearen adostasuna jaso ondoren.
- d) Bilkuren aktak onartzea.

28. artikulua. Lehendakariak, edo berariaz funtzio hau eskuordetzen zaion pertsonak, urtean behin aurkeztuko du bere jarduerari eta Zuzendaritza Batzordeari buruzko txostena, eta baita 21. artikuluko H) paragrafoaren arabera Zuzendaritza Batzordeak erabakitako batzorde berezien ingurukoa ere.


29. artikulua. Lehendakariordetzak bere gain hartuko ditu, Lehendakariak egin ezean, Lehendakariari dagozkion funtzio guztiak.

30. artikulua. Idazkaritzari, aldi berean Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritza izango dena, honako funtzioak dagozkio:

- a) Informazioa eta aginduak helaraztea Zuzendaritza Batzordearen eta Gerentziaren artean.
- b) Lehendakariak emandako aginduak betetzen direla eta Elkarrearen zerbitzu guztien funtzionamendua gainbegiratzea, eta kide guztiei beren interesekoak izan litezkeen gai guztien berri ematea.
- c) Lehendakariaren jarraibideak errespetatuz, Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen deialdiak eta "gaien zerrendak" prestatzea, eta bileren aktak baimentzea eta zaintzea.
- d) Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak edo Lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion funtzioak.
- e) Idazkaritza bati dagozkion funtzio guztiak.

31. artikulua. Diruzaintzak honako funtzioak izango ditu:

- a) Elkarrearen funtsen zaintza eta Lehendakariarekin baterako sinadura erregelamenduetan ezarritako zenbatekoetarako.
- b) Elkartekideek ordaindu beharreko orotariko kuoten eta derramen diru-bilketen kontrola.
- c) Ordainketak baimentzea, edo ordainketak burutzen dituzten hirugarrenak gainbegiratzea.
- d) Finantzen egoera gainbegiratzea, Zuzendaritza Batzordea jakinaren gainean jarritz, behar den aurrerapenarekin, baliabide-eskasia egongo dela aurreikusten duen momentuan.



- e) Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea aurrekontua, balantzea eta kontuen egoera.
- f) Kontabilitatea antolatzea momentu oro Elkartearen egoera ekonomikoa agerikoa izateko moduan.

32. artikulua. Elkartearen gaien kudeaketa Idazkaritza Orokor baten eta/edo Gerentzia baten esku utzi ahalko da. Organo betearazle hauen eskumenak erregelamenduen bidez ezarriko dira, behar duten laguntza emango zaie eta egotzi zaizkien funtzioak ahalik eta hoberen betetzeko baliabideak eskura jarriko zaizkie.

Organo hauek funtzioak izango dituzte ondorengo alorretan: administrazio- eta aholkularitza-zerbitzuak, harremanak, informazioa, dokumentazioa eta estatistikak eta Zuzendaritza Batzordearen erabaki bidez egozten zaizkien gainerakoak.

Ez dute Elkartearen gobernu-organoen eskuordetutako funtziorik hartuko, horretarako berariazko erabaki bat hartzen bada salbu eta, edozein kasutan ere, epe jakin baterako.

Kargu hauen izendapena Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabaki bidez burutuko da eta Elkartearekin duten lotura lan-kontratu bidez formalizatuko da. Idazkaritza Orokorraren kasuan, urtebeteko iraupena izango du eta iraupen bereko epeetan zehar berritu ahalko da Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabaki bidez.

33. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak hiru Ohorezko Lehendakaritzara arte proposatu ahalko ditu eta Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu.

Elkartearen Ohorezko Lehendakaritza pertsona jakinen kidegoaren, sostenguaren eta laguntzaren errekonozimendu gisa emango da, bai barne-ordezkaritzako organoetan zein inguru instituzionaletan edo enpresaren alorrean.

Ohorezko Lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen bilkuretan parte hartu ahalko dute, hizpidearekin baina botorik gabe.

Ohorezko Lehendakari izaera galtzea gertatuko da izendatutako pertsona hiltzean, edo Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, erabaki hori Batzar Nagusiak berretsi beharko duelarik.

IV. kapitulua

ELKARTEAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

34. artikulua. Elkarreak erabateko autonomia ekonomikoa izango du eta bere ondarea, orotariko ondasun eta eskubideek osatua egon ahalko dena, urteko aurrekontuen bidez kudeatuko da, urte naturalarekin bat etorritz.

Elkartearen erantzukizun ekonomikoa bere ondarearekin bat etorriko da.

Aurrekontuak aurreikusitako gastuen arabera prestatuko dira eta kideen kuota finko eta aldian behingo kuotekin ordainduko dira.

35. artikulua. Elkartearen kudeaketa ekonomikoa Batzar Nagusiak onartutako urteko aurrekontuan xedatutakoaren arabera eta bertan ezarritako mugen arabera burutuko da. Aurreikusi ez diren gastu eta inbertsioen kasuan, Zuzendaritza Batzordeak aurrekontu berezi bat prestatu ahalko du Batzar Nagusiaren berrespena jaso beharrik gabe, betiere horrek ekartzen ez badu kuotak areagotzea edo derramak aplikatzea eta, bestela, Batzar Nagusiaren berrespena beharko du. Azken kasu honetan, Batzar Nagusiaren onarpena aurrekontu berezia indarrean sartu baino lehen jaso beharko da.

Xedeak betetze aldera, Elkarreak honako baliabideak izango ditu eskura:

- a) Elkartekideen kuota finkoak eta aldian behingo kuotak, izen-emateez gain.



- b) Batzar Nagusiak aldian behin ezar litzakeen kotizazio eta derrama bereziak, ezohiko kasuei arreta emateko.
- c) Bere ondarearen produktu eta errentak.
- d) Doako erabilera dakarten baliabideak, esaterako, dohaintzak, herentziak, ondareak eta antzekoak, eta baita hitzarmenen negoziazioen konpentsazioetatik eratorritakoak ere.
- e) Legezko xedapenen arabera eskuratutako beste edozein baliabide.

36. artikulua. Elkartearen funtzionamendua ahalbidetzeko, ondorengo kuotak ezarri dira:

1. Izen-emate kuota modalitate desberdinetan, Zuzendaritza Batzordeak ezarri beharrekoa.
2. Urteko kuota finkoa ostalaritza-industria bakoitzaren arabera aldakorra izango dena eta, beharrezkotzat jotzen bada, industria bakoitzaren kategoriaren, fiskalitatearen, lan-okupazioaren eta kapazitatearen arabera ere aldakorra izango dena.

Tarifa eta modulu hauek Zuzendaritza Batzordeak prestatuko ditu, ondoren Batzar Nagusiari horren berri emanaz. Batzar Nagusiaren berrespena beharrezkoa izango da tarifa eta moduluek burututako azken berrikuspenaz geroztik metatutako KPIa baino gehiagoko areagotzeak dakartzatenean.

Ezarritako kuotak ordaintzea derrigorrezko baldintza izango da elkartekidearen eskubide guztiak mantendu ahal izateko.

Ez ordaintze errepikakorra egon dela ulertuko da ordaintzeko betebeharra bi aldiz jarraian bete ez bada.

Honelako kasuetan, elkartekide berankorrari exijitu egingo zaio, hogeita hamar eguneko epe luzaezinean, zor dituen zenbatekoak ordain ditzan.

Adierazitako epearen buruan eskatutakoa bete ez balu, pertsona horren baja proposatuko da Zuzendaritza Batzordean.

V. kapitulua

ELKARTEA DESEGITEA

37. artikulua. Elkartea desegingo da Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu, 17. artikuluan ezarritako baldintzen arabera hartutako erabaki bidez.

Halaber, Elkartea desegitea gertatu ahalko da errekurtsorik onartzen ez duen epai judizial baten ondorioz edo eskumena duen agintaritza baten xedapenaren ondorioz.

38. artikulua. Desegitea adostu edo agindu ondoren, Elkartearen aktiboa eta pasiboa likidatzeari ekingo zaio eta gain hartutako erantzukizunetatik eratorritako obligazio guztiak beteko dira, Elkartearen ondarearen arabera.

39. artikulua. Elkartea deseginda, Batzar Nagusiak botoen gehiengo soilaren bidez erabakiko du bete beharreko obligazio guztiak bete ondoren gera litezkeen Elkartearen ondasun, eskubide, instalazio eta zerbitzuei eman beharreko erabilera.

Batzar Nagusiak kontrakoa erabaki ezean, Zuzendaritza Batzordeko kideak izango dira Elkartearen likidatzaileak.



VI. kapitulua

DIZIPLINA ARAUBIDEA

40. artikulua. Diziiplina-zigorra ekar lezaketen hutsegiteak hiru mailatan sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.

41. artikulua. Hutsegite oso larriak izango dira:

- a) Enpresa-jardueren ondoriozko doloazko delituak, edozein parte-hartze gradutan.
- b) Zuzendaritza Batzordea edo Elkartearen gainerako organoak osatzen dituzten pertsonen duintasunaren eta izen onaren kontrako atentatua, pertsona horiek beren funtzioak burutzen ari direnean.
- c) Elkarteko gainerako kideen edo beren lanbidearen duintasunarentzat irain larria diren egintzak eta ez-jarduteak.
- d) Elkartearentzat edo Elkartearen xedeen lorpenerako kalte larria ekartzen duten edo ekar lezaketen egintzak eta ez-jarduteak.
- e) Elkartearen xede edo funtzio berak dituzten edo Elkartearen xede edo funtzioei nolabait eragiten dieten jarduerak burutzea eta elkarreak edo erakundeak eratzea.
- f) Estatutu hauen arabera derrigorrezkoak diren kuotak ez ordaintzea.
- g) Hutsegite larriak errepikatzea.

42. artikulua. Hutsegite larriak izango dira:

- a) Elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak edo estatutu-arauak ez betetzea.
- b) Estatutu hauen arabera elkartekideei dagozkien betebeharrak behin baino gehiagotan ez betetzea.
- c) Lehia bidegabea.
- d) Errespetu faltak, egintza edo ez-egite baten ondorioz, Elkartearen Zuzendaritza Batzordea edo gobernu-organismoak osatzen dituzten pertsonen kiko.
- e) Hutsegite arinak errepikatzea.

43. artikulua. Hutsegite arinak izango dira:

- a) Estatutuen arabera kideei dagozkien betebeharren bat ez betetzea, betiere hutsegite larri edo oso larri gisa sailkatutako ez-betetzea ez bada.
- b) Aurreko bi artikuluetan aipatutako edozein ekintza, edozein arrazoi dela eta larritzat edo oso larritzat jotzeko entitate nahikoa ez duenean.

44. artikulua. Aurreko artikuluetan aurreikusitako hutsegiteen ondorioz jarri ahalko diren zigorrak hurrengoak izango dira:

1. Hutsegite oso larriak.

- a) Elkartekide izaera galtzea.
- b) Elkartekide izaera galtzea 3 hilabete eta 2 urte bitarteko epe batez.

2. Hutsegite larriak: elkartekide izaera galtze 3 hilabetera arteko epe batez.



3. Hutsegite arinak:

- a) Idatzizko ohartarazpena.
- b) Agiraka pribatua.

45. artikulua. Hutsegite arinak Zuzendaritza Batzordeak zigortuko ditu eta, bere izenean, Lehendakariak, aurretiko espedienteak ireki beharrik gabe eta salatutako pertsonari entzunaldia edo defendatzeko aukera eman ondoren.

46. artikulua. Hutsegite larriak eta oso larriak Zuzendaritza Batzordeak zigortuko ditu, artikulua honen arabera izapidetutako dizi-plina-espedienteak ireki ondoren.

Espedienteak Zuzendaritza Batzordearen erabaki bidez irekiko da eta bertan adieraziko dira espedientearen instruktoare eta idazkari gisa jardungo duten pertsonak.

Erabaki hau interesdunari jakinaraziko zaio hiru egunen buruan, instruktoare eta idazkari gisa izendatutako pertsonen inguruan beharrezkotzat jotzen duena argudiatzeko aukera izan dezan.

Jakinarazpen-epea igarota, instruktoareak salaketa-agiri bat prestatuko du bertan adieraziz, zehaztasun nahikoarekin, salatutako pertsonaren ustezko hutsegiteak. Erabaki hau eta bertan jasotako salaketa-agiria bere osotasunean helaraziko zaizkio interesdunari, jakinarazpena jaso eta gehienez ere 10 eguneko epean argudia dezan bere defentsarako beharrezkotzat jotzen duen gutzia.

Interesdunaren defentsa-idazkia jaso ondoren edo aurreko paragrafoan aipatutako epea igaro ondoren, kasuaren arabera, instruktoareak ebazpen-proposamen bat prestatuko du eta berriz ere interesdunari helaraziko dio, argudiatzeko 10 eguneko epea emanez.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea igarota, espedienteak Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaio eta honek bere ebazpena ezarriko du, espedientearen datuak kontuan hartuz eta dagokion zigorra ezarri.

Halaber, espedientearen izapidetze-prozesuan, Zuzendaritza Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen proba-izapide guztiak eskatu ahalko ditu, inolako mugarik gabe, salatutako pertsonari egozten zaizkion ekintza guztiak argitzeko xedearekin.

Zigor-espedienteak izapidetzeko burutu beharreko jakinarazpen guztiak modu sinetsgarrian burutuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek indarrean sartuko dira eskumena duen agintaritzak hala baimentzen duenean edo, hori gertatu ezean, helburu hauetarako ezarritako bulego publikoan Estatutu hauek aurkeztu eta 20 egunen buruan, baldin eta, epe horren barruan, agintaritzak judizialari eskatzen ez bazaio Estatutuak zuzenbidearekin bat ez datozela adieraz dezan, apirilaren 1eko 19/1977 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

EGINBIDEA: Eguneko Estatutua, orri guztietan sinatuta aurkezten direlarik, 2016ko ekainaren 27an ospatutako Batzar Orokor Arruntan erabaki ziren aldaketak kontuan hartuta idatzi dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EMPLEO ETI GIZARTE
POLITIKETAKO SALA
Bizkaito Lanako, Enplegu eta
Gizarte Politiketako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Delegación Territorial de Trabajo, Empleo
y Políticas Sociales de Gorkaia